

7 - LAPUEBLA DE LABARCA - MAÑUETA

(2016-12-17)

EZAUGARRIAK

DISTANTZIA: 19,6 km.
DESNIBELA: + 304 m. / - 302 m.
DENBORA: 5 or.

Arabako Errioxako lurretan jarraitzen dugu, eta etapa hau mahasti eremu handietan barrena joango da erabat.

Lapuebla de Labarca (420m). Herria Laguardiak mugatzen du iparretik, ekialdetik eta mendebaldetik, eta hegoaldera, Ebro ibaiak bananduta, Fuenmayor, Errioxako Autonomia Erkidegoa.

Etapa La Poveda hiribidean hasiko dugu. Kale luze eta laua da, eta bertan, bost arandegi txiki ikusiko ditugu alde batera eta bestera. Hasiera hori Gr-99 Ebroko Bide Naturala da, eta bide horrekin behin baino gehiagotan topo egingo dugu zeharkaldian zehar.

Hasi eta 750 metrora, bidegurutze bat hartuko dugu Ebro ibai ertzera jaisten dena, eta bidegurutze batera eramango gaitu (2,1 km). Han, Gr-99 utziko dugu, eta pista bat hartuko dugu ibai ondotik doana makal gune batetik, eta La Povedara iritsiko gara, haurrentzako parke gune batera.

3,3 km.

Berriz ere, Gr-99 bidera sartuko gara; mahasti artean ibili eta “Chopera El Encinal” basora iritsiko gara. 5,7 km.

Ebroren ondotik jarraituko dugu mahasti artean. Etaparen 8,2 km-ra, Eltzigora doan Gr-99 utzi eta ibaitik hurbil jarraituko dugu. Mahasti artean ibiliz, Ebrora isurtzen den Mayor ibai gurutzatuko dugu. “Viña Salceda” arandegiaren ondotik eta Ebrok Cenicero aldera gurutzatzen duen zubiaren azpitik pasako gara.

Pista batean jarraituko dugu, eta, berriz ere, Eltziegotik datorren Gr-99 bidearekin topo egingo dugu (12,9 km) eta ez dugu utziko Mañueta / Baños de Ebrora iritsi arte.

Barne-pistetan ibiliko gara, igoera eta jaitsiera txikietan barrena, A- 4205 errepidera iritsi arte. 18,6 km.

Azkeneko zati hori errepidetik egingo dugu, Mañuetara iritsi arte (422m). Antiguako Ama Birjinaren elizaren ondoan amaituko dugu etapa. 19,6 km.